

GIG 01

MUTRIKUKO BUZTIN ETA OFITA TRIASIKOAKBALIO INTRINTSEKOA: **2,25**BALIAGARRITASUN-MAILA: **1,88**KALTEBERATASUN-MAILA: **1****GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA**

Mutrikutik Ondarroarako bidean, N-634 errepidean dagoen ezpondan, Geoparkeko arrokarik zaharrenak ikus daitezke. Buztin nabar eta igeltsu zuri triasikoen azaleramendu bat da, gorputz hektometrikoak osatzen dituzten arroka azpibolkanikoak (ofitak eta diabasak) barne hartzen dituen. Mutriku inguruan, arroka horiek Berriatuko failan zehar egin zuten gora, eta beraz, arroka horien eta ondokoan arteko kontaktua mekanikoa da.

Aipatutako arroka Triasikoan eratu ziren, klima lehor eta epeleko ingurune kontinental batean; eta klima hori, hain zuzen, lagungarria izan zen ebanporitak osatzeko. Pangearen banaketak, berriz, zartadurak eragin zituen, eta arroka magmatiko azpibolkanikoak zartadura horietan inruitu ziren.

Kretazeoan, Tertiarioan eta Orogenia Alpetarrean, arroka horiek, sakon-sakonean zeudenez, gaineko sedimentuen karga handia jasan behar zuten (Jurasiko, Kretazeo eta Tertiarioko sedimentuena), baina dentsitate txikikoak izaki, pitzaduretan sartuz joan ziren, Berriatuko faila aktiboan, esaterako, eta hala, gora egin zuten, arroka kretazeoen goiko mailetan geratu arte (hortxe daude gaur egun ere).

NOLA BERTARATU

Azaleramendua Mutrikutik Ondarroarako bidean dago, N-634 errepidean, Olatzerako bidegurutzetik gertu.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Mutrikuko azaleramendu triasikoaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 549221 m / Y= 4795042 m / Alt.= 63 m



Ofiten zartaduretan aurkitutako epidota-kristalak, gertutik ikusita.